



Iruñeko Udalaren 2015eko Memoria

Herritaren segurtasuna

Delituak eta arau-hausteak

Iruñean, hiriko Udaltzaingoak, Foruzaingoak eta Polizia Kidego Nazionalak emaniko datu bateratuen arabera, 2015ean guztira 10.569 delitu eta arau-hauste egin ziren (12.214, 2014an); % 29 (3.109) arau-hausteak izan ziren, eta % 71 (7.460), delitutzat jo ziren. Kontuan hartu behar da zenbaki horretan urte osoko delituak zenbatuak daudela, baina arau-hausteak, berriz, ekainera arte baizik ez.

Pertsonen aurkako delituak	516
Tratu txarrak eta sexu-askatasunaren aurkako delituak	480
Lapurreta-delituak bortxa edota larderia erabilita	224
Lapurreta-delituak bortxa erabilita	461

Ondarearen aurkako delituak	5016
Zirkulazio-delituak, beste batzuk (estupefaziante-trafikoa barne)	763
DELITUAK GUZTIRA	7460

Arau-haustek: ebasketa	1571
Pertsonen aurkako arau-haustek	301
Gainerako arau-haustek	1237
ARAU-HAUSTEAK GUZTIRA	3109

Kriminalitatearen bilakaera, Udaltzaingoaren datuen arabera	2011	2012	2013	2014	2015

Atxilotuak eta inputatuak

Iruñeko Udaltzaingoak 123 lagun atxilotu zituen 2015ean, delitu hau edo hura egin zutelakoan. 2014an, berriz, 178. Atxiloketek, nagusiki, ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituekin izan zuten zerikusia, bai eta auzi judizialekin eta lesio-delituekin ere. Hilez hil, uztailean izan ziren atxiloturik gehien (24), eta ondoren, maiatzean (18).

Delituak	2013	2014	2015
Lesioak	26	16	23
Askatasunaren aurka	4	0	0
Sexu-askatasunaren aurka	4	4	5
Intimitatearen aurka, irudi- eskubidearen aurka...	1	0	1
Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurka	44	104	48
Segurtasun kolektiboaren aurka	3	12	8

Faltsutzeak	1	3	0
Justizia-administrazioaren aurka	5	0	2
Ordena publikoaren aurka	10	6	4
Afera judizialak	33	31	30
Atxilotuak guztira	131	178	123

Inputatuei dagokienez, jaitsiera izan zen; hau da, 2013an, 71; 2014n, 94; eta 2015ean, aldiz, 51. Honela banatuta

Zehaztu gabe	1
Lesio-delituak	2
Askatasunaren aurkako delituak	1
Ohorearen aurkako delituak	0
Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituak	36

Faltsutze-delituak	1
Justizia-administrazioaren aurkako delituak	3
Bestelako delitu-ekintzak	1
Afera judizialak	3
INPUTATUAK GUZTIRA	51

Substantzia estupefazianteak atzitzea

2015ean, Iruñeko Udaltzaingoak estupefazianteak atzitzeko 343 akta egin zituen; haietako batzuetan hainbat droga mota harrapatu zirenez, atzipen gehiago zenbatu ziren: 403 guztira. Akta gehienak marihuana-atzipenei buruzkoak izan ziren, eta ez zen estasi-atzipenik izan. 343 akta horietatik, 44 adingabekoei buruzkoak izan ziren; gehienak, marihuanak eraginda. Guztira 2014. urtearen aldean, honela dago banatuta:

	2014	2015
--	------	------

Anfetamina	7	10
Kokaina	57	52
Kokaina eta anfetamina	1	2
Pilulak		1
Estasia (MDMA)	178	5
Haxixa	47	47
Heroina	13	6
Ketamina	1	2
L.S.D.	1	
Marihuana	252	233
Baliogabeak	4	1
Beste batzuk	18	16

Speeda	31	28
--------	----	----

Udal-ordenantzak urratzea

Iruñeko Udalak eta Udaltzaingoak udal-ordenantzak betetzen ote diren begiratzen dute, hirian bizikidetza ona bermatzeko eta herritarren eskubideak nahiz ondasun publikoak errespetatzea ziurtatzeko. 2015ean, 1.206 salaketa jarri ziren udal-ordenantzak urratzeagatik; 2014an, aldiz, 1.064. Eremu publikoan pixa egitea eta auzokideen atsedena trabatzen duten zaratak egitea izan ziren zehatutako portaera nagusiak.

Udal-ordenantzei egindako urraketa nagusiak:

Pixa egitea	614
Auzokideen atsedena trabatzen duten zaratak egitea	73
Zerbitzu publiko baten jarduna trabatzea	66
Agintaritzaren aginduak ez betetzea	61
Zaborra, paperak, beirakiak...botatzea	57

Eremu publikoan kaka eta tu egitea	50
Salmenta ibiltaria	45

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Salaketen bilakaera	2.559	1.814	1.220	1.405	1.064	1206

Zirkulazio-salaketak

Udaltzaingoak 13.418 salaketa jarri zituen, gehienak (6.555) gaizki aparkatzeagatik edo abiadura handiegian joateagatik (3.373). TAOko zaintzaileek, gainera, 27.280 salaketa jarri zituzten.

Udaltzaingoak ezarriak	13.418
Alkohola	773

Aparkatzea	6.555
Ausarkeriaz gidatzea	114
Mugikorra	379
Gainerakoak	498
Seinaleak	1.714
Abiadura	3.373
Zehaztu gabeko artikulak	12
TAOko zaintzaileek ezarriak	27.280
Aparkatzea	27.279
Beste batzuk	1

DGTra igorritako salaketak, haren eskumenekoak izateagatik

	2014	2015
Asegururik ez izatea	427	531
Zirkulazio-baimenik ez izatea	17	15
Gidabaimenik ez izatea	40	29
I.A.T.	400	506
Marrazkirik ez duten pneumatikoak	47	40
Homologazio-baldintza teknikoak ez betetzea	73	48
Gidabaimena iraungia dela gidatzea	76	75
Beste hainbat kontzeptu	82	107
GUZTIRA	1.162	1.351

Ostalaritzako arau-hausteak

2015ean, ostalaritzan, 199 arau-hauste atzeman ziren; hau da, aurreko urtean baino 16 gutxiago. Gehienak establezimenduak ixteko ordutegia ez betetzeagatik (64). Ondoren, edaria kalera (50) edo terrazatik kanpo ateratzeagatik (18), musika 11:00etan baino lehen pizteagatik (17) eta baimendutako edukiera gainditzeagatik (16).

Establezimenduak	2015	2014
Lizentziarik gabeko jarduerak	0	10
Erreklamazio-orririk ez izatea	0	1
Musika 11:00ak baino lehen piztea	17	2
Edukiera gainditzea	16	19
Baimen-baldintzak ez betetzea	0	11
Ixteko ordutegia ez betetzea (tabernak)	64	70
Jarduera garatzeko arauak ez betetzea	8	22
Bozgorailuak kanpoaldean baimenik gabe jartzea	0	0

Adingabeei alkohola saltzea debekatua dagoelako kartelak ez izatea	0	0
Baimenik gabe zuzeneko emanaldiak ematea	0	1
Adingabeei edariak kontsumitzen uztea	0	1
Arau-hauste arinak errepikatzea eta behin eta berriro egitea	0	0
Lokaletik kanpo edaria ateratzea	50	3
Soinua-muga gainditzea	0	0
Lizentziarik gabe edari alkoholdunak saltzea	0	0
Lizentziarik gabe zuzeneko emanaldiak ematea	3	0
Beste batzuk	0	10
Terrazak		
Terraza baimenik gabe paratzea	0	7

Terraza jartzeko baimenaren baldintzak ez betetzea	0	2
Baimendutakoak baino elementu gehiago jartzea	7	8
Terraza-jarduera ordutegitik kanpo egitea	13	19
Terraza kentzeko agindua ez betetzea	0	2
Baimenik gabeko elementuak paratzea	3	5
Terraza ez garbitzea	0	1
Terraza-eremutik kanpo edaria ateratzen uztea	18	2
Aulkiak terrazan gordeta izatea	0	2
Guztira	199	215

Garabiak ibilgailuak eramatea

	2014	2015
Kobratuta	10.846	7.813

Kobratu gabe	487	470
Guztira	11.333	8.283

Iruñeko Udalaren zerbitzu batek SMS bidez jakinarazten du udal-garabiak ibilgailua eramanen duela, gaizki aparkatuta egoteagatik. Zerbitzuan 16.107 lagun daude alta emanik. 2015ean, 464 mezu bidali zituen, eta horri esker, garabiak ez zituen eraman 270 lagun ibilgailuak. Alerten xedea da garabiak eremu publikotik ibilgailu gutxiago eramatea. Garabiak ibilgailuak eramaten ditu gaizki aparkatuta egoteagatik (zamaketa-lanen eremua, minusbaliatuei gordetako lekuak, oinezkoendako pasabideak, bidegurutzeak edota bigarren ilara) edota aparkatze mugatuko eremua ez ordaintzeagatik (eremu urdina, laranja eta gorria). Doako abisu-sistema Iruñean ibilgailuz dabilen edo bertan aparkatzen duen lagun ororen eskura dago, haien ohiko bizilekua non dagoen alde batera utzita.

Entzierroaren ordenantza urratzeak eragindako salaketak

	2014	2015
--	-------------	-------------

Bigantxari buztanetik heltzea	1	0
Zaborrak entzierroaren ibilbidera botatzea, behin garbi dagoenean	1	0
Entzierroa (zezenei deitzea, objektuak eramatea...)	1	1
Bideoa entzierroaren ibilbide barnean grabatzea	1	1
Entzierroan ibilbidean bideoa grabatzea	10	0
Entzierroan abelburuei deitzea	3	1
Entzierroaren ibilbide barneko toki debekatuetan egotea	1	1
Bigantxen gainera igotzea	1	0